ADINEKOEN AURKAKO TRATU TXAR EKONOMIKOAK ETA FINANTZA-ABUSUA



PREBENTZIORAKO ETA DETEKZIORAKO GIDA ETA JARDUTEKO GOMENDIOAK

#EUSKADIBERRIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR, JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



Eusko Jaurlaritza

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila

Egileak:

RAFAEL ARMESTO DEL CAMPILLO. Abokatua. ICABizkaia

MARIJE GOIKOETXEA ITURREGUI. Doktorea Giza Eskubideetan. Deustuko Unibertsitatea

1. GIDAREN SARRERA ETA HELBURUA. TESTUINGURUA: BIZTANLERIAREN ZAHARTZEA ETA ZAURGARRITASUN EKONOMIKOA	**5**
2. ESPARRU KONTZEPTUALA: ADINEKOEN AURKAKO TRATU TXAR EKONOMIKOAK	**6**
2.1. Abusu ekonomikoaren definizioa eta tipologiak	6
2.2. Epidemiologia eta prebalentziari buruzko datuak	7
2.3. Tratu txar ekonomikoen ondorioak: inpaktu biopsikosoziala eta komorbilitatea	8
3. TRATU TXARRAK PREBENITZEA: ARRISKU-FAKTORE MULTIDIMENTSIONALAK DETEKTATZEA	**9**
3.1. Adinekoen zaurgarritasun neurokognitiboa	9
3.2. Arrisku-faktore pertsonal eta biografikoak	9
3.3. Gizarteko diskriminazio-faktoreak: Adinkeria eta kapazitismoa	9
3.4. Finantza-ahalmenaren gainbehera-zantzuak	10
3.5. Jokaera kezkagarriak besteekiko harremanean	10
3.6. Anomaliak ekonomia-jardueran	10
4. TRATU ONAK. ADINEKOEI HARRERA ONA EGITEA, BEREZIKI ZAURGARRIAK DIREN BANKU-BEZEROTZAT HARTUTA	**11**
4.1. Tratu begirunetsu, hurbil eta pertsonari egokitua ematea	11
4.2. Egon litezkeen zaurgarritasun-egoerak identifikatzea	11
4.3. Gardentasuna eta informazio ulergarria areagotzea	11
4.4. Adinekoen autonomia errespetatzea	11
5. TRATU TXAR EKONOMIKOAK EDO FINANTZA-ABUSUA DETEKTATZEA: ADIERAZLEAK ETA ERREMINTAK	**12**
5.1. Abusu ekonomiko posible baten adierazle operatiboak	12
5.2. Egitezko zaintzaren garrantzi bereziaz jabetu eta banku-eremuan aitortzea ...	13
5.3. Tratu txarrak detektatzeko erreminta batzuk	13
6. ARAU-ESPARRUA ETA ERAKUNDEEN PROTOKOLO GARRANTZITSUAK	**17**
6.1. Nazioarteko araudia	17
6.2. Estatuko araudi garrantzitsua	17
6.3. Finantza-eremuko araudia eta politika publikoak	19
6.4. Ministerio Fiskalaren jarduketa-protokoloak	20
7. FINANTZA-ABUSUA EDO TRATU TXAR EKONOMIKOAK DAUDELAKO SUSMOA DAGOENEAN ESKU HARTZEKO ORIENTABIDEAK	**20**
7.1. Esku hartzeko printzipio orokorrak	20
7.2. Esparru etikoa eta datuen babesa	21
7.3. Abusu ekonomiko posible baten zantzuak daudenean jardutea (hasierako jarduketa)	22
7.4. Ministerio Fiskalari komunikatzea	22
7.5. Gizarte-zerbitzuekin koordinatzea	22
7.6. EAEko kontaktu nagusiak	22
ERABILITAKO ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	**23**
KONTSULTATUTAKO DOKUMENTAZIO JURIDIKOA	**24**



1. GIDAREN SARRERA ETA HELBURUA. TESTUINGURUA: BIZTANLERIAREN ZAHARTZEA ETA ZAURGARRITASUN EKONOMIKOA

Biztanleria zahartzen ari da, eta horixe da, hain zuzen ere, gure garaiko gizarte-erronka nagusietako bat. EAEn, bizi-itxaropena handitu izanak eta adinekoen kopurua pixkaka areagotu izanak erantzukizun berriak ekarri dizkiete hala erakunde publikoei, nola gizarte osoari.

Erantzukizun horien artean, adinekoak askotariko tratu txarretatik babesteko ahalegina handitzekoa nabarmentzen da, tratu txartzat hartuta haien ongizateari, duintasunari eta eskubideei ez ezik haien ondareari eta autonomia ekonomikoari ere eragiten dietenak. Egoera horien barruan, ekonomia- edo ondare-abusua errealitate bat da, zeinak, batzuetan ezkutuan egoten bada ere, ondorio pertsonal, familiar eta sozial larriak eragin baititzake.

Adinekoen aurkako abusu ekonomikoko egoerak konfiantzazko edo mendekotasunezko inguruneetan gertatzen dira, non senideek, zaintzaileek edo hurbilekoek hartzen baitute esku, ondarearen gaineko erabakiak hartzean manipulatuta edo mendekotasun- edo zaurgarritasun-egoerez aprobetxatuta. Benetan zaila da horrelako egoerak detektatzea; beraz, nor bere eremutik adinekoekin elkarreraginean aritzen diren askotariko profesionalek modu aktiboan inplikatu behar dute. Beraz, tratu txar ekonomiko edo finantzarioa indarkeria molde maiz ikusezina da, eta, asko-askotan, ez da salatzen.

Adineko asko zaurgarritasun-egoeran egoten dira, dela narriadura kognitiboagatik, dela produktu konplexuak ulertzeko zailtasunengatik, dela arrakala digitalagatik, dela mendekotasun funtzionalagatik, dela bakartze sozialagatik. Finantza-erakundeek eta eremu juridiko eta sozialeko profesionalek toki pribilegiatua daukate hala alerta-seinaleak identifikatzeko, nola, ondare-arloan kalte larriak saiheste aldera, prebentzio-neurriak hartzeko. Arduraz eta koordinatuta jarduteak modu erabakigarrian lagundu dezake adinekoen autonomia, segurtasun ekonomikoa eta eskubideak zaintzen.

Testuinguru horretan, lehentasunezkoa da tresnak sustatzea abusu ekonomikoko egoerak prebenitzen, goiz detektatzen eta, halakorik egonez gero, ondo jarduten laguntzeko. Gida honek helburu horri erantzuten dio, eta bereziki zuzentzen zaie banku-erakundeetako, notaritzetako eta gizarte-zerbitzuetako langileei, eginkizun giltzarria betetzen baitute adinekoen babesean. Bestetik, gida honek oinarri du adinekoen duintasuna, autonomia eta parte-hartzea errespetatuko dituen gizarte bat sustatzeko konpromisoa. Halaber, gidak beren-beregi heltzen die giza eskubideak babesteko nazioarteko tresnetan eta Estatuko nahiz autonomia-erkidegoko araudian (zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonak babestea bermatzekoan) ezarritako printzipioei.

Dokumentuak orientabide praktikoak ematen ditu, profesionalek errazago jardun ahal izan dezaten abusu ekonomikoko egoera posibleen aurrean, eta, era berean, barruan biltzen ditu alerta-seinaleak detektatzeko irizpideak, egoera susmagarrien aurrean jarduteko gidalerroak eta erabilgarri dauden baliabide instituzionalen erreferentziak.

Egitasmo honen azken helburua da adinekoak abusu ekonomikotik gehiago babesten laguntzea, eta, aldi berean, haien autonomiarekiko eta erabakimenarekiko errespetua sustatzea du xede; halere, aplikatzekoa da beste testuinguru batzuetan ere, hala nola desgaitasun intelektuala edo osasun mentaleko arazoak daudenean. Adinekoen aurkako edozein tratu txar prebenitu eta desagerraraztea erantzukizun partekatua da, eta, hortaz, halabeharrezkoa da erakunde publikoak, profesionalak eta gizarte osoa lankidetzan aritzea, guzti-guztion eskubideekin begirunetsua izango den gizarte justu eta inklusiboago bat eraikitzeko konpromisoari jarraikiz.

2. ESPARRU KONTZEPTUALA: ADINEKOEN AURKAKO TRATU TXAR EKONOMIKOAK

2.1. ABUSU EKONOMIKOAREN DEFINIZIOA ETA TIPOLOGIAK

OMEren definizioaren arabera (2021), tratu txarrak dira, oro har, "adineko bati kaltea edo larritasuna eragiten dion eta, era berean, konfiantza-espektatiba daukan edozein harremanen barruan gertatzen den ekintza bakar edo errepikatua, edo erantzun egokirik eza". Bada, definizio horrek inspiratu du EAEko protokoloa, eta, hor oinarrituta, zehaztu dezakegu *tratu txar ekonomikoa dela edozein ekintza edo omisio, zeinaren bidez pertsona batek, konfiantza-, mendekotasun- edo zaurgarritasun-egoera batez baliatuta, bidegabe erabiltzen baititu adineko baten baliabide ekonomikoak, ondasunak edo ondare-eskubideak, eta kalte ekonomikoa eragiten*.

Abusu molde hori gerta daiteke, batetik, argi eta garbi bidegabeak diren jokabideen bidez, baina, bestetik, baita itxuraz onesten diren jarduketen bidez ere. Alabaina, azken jarduketa horiek presioa, manipulazioa edo eragin negatiboa ezarriz gauzatzen dira; bereziki, adinekoa fisikoki, kognitiboki, emozionalki edo sozialki hauskor dagoenean.

Tratu txar ekonomikoek askotariko adierazpenak izaten dituzte. Hona hemen tipologia ohikoenetako batzuk:

Finantza-tresnak baimenik gabe erabiltzea

Beste batzuek adinekoaren kontu korronteak, banku-txartelak, sarbide-gakoak edo ordainketa-bideak erabiltzen dituzte, hark horren berri ez duela edo baimenik eman ez duela, edo eman dizkieten ahalak gaindituz. Familia-ingurunean, hauxe da abusu molde ohikoena, eta jokabide hauetan zehazten da:

- Diru-sarrerez jabetzea: Senideek edo zaintzaileek pentsioak, errentak edo laguntza publikoak kobratzen dituzte, baina dirua ez dute adinekoaren ongizatera edo gastuetara bideratzen.
- Txartelak/gakoak baimenik gabe erabiltzea: Adinekoaren txartelak erabiliz kutxazainetan eskudirua ateratzen dute, edo linean erosketak egiten dituzte, haren berariazko baimenik gabe edo hura engainatuz.
- Oinarrizko baliabideak desbideratzea: Adinekoa prekarietate-egoeran bizitzera behartzen dute (berogailurik, higienerik edo janari egokirik gabe), haren kapitala jaraunsleen mesedetan "aurrezteko".

Ondare-egintzak egiteko presioa edo manipulazioa ezartzea: Eragin bidegabea eta derrigortzea (borondatea manipulatzea)

Batzuetan, adinekoari presioa ezartzen diote, edo limurtu egiten dute, eragiketa ekonomiko jakin batzuk egin ditzan, hala nola dohaintzak, transferentziak, maileguak edo aldaketak ondasunen titularTasunean. Horrelakoetan, adinekoak eragin bidegabearen, manipulazio emozionalaren edo mendekotasun-harremanaren pean hartzen ditu erabakiak. Adinekoak, halaber, ekonomiari edo ondareari buruzko dokumentuak sina ditzake, erabat ulertu gabe horren irismena edo ondorioak. Eragiketak itxuraz borondatez egiten direnean, oso zaila izaten da egoera horiek identifikatzea. Batzuk nabarmentzen dira:

- Testamentua behartuta aldatzea: Adinekoari presio psikologikoa ezartzea edo abandonu-mehatxuak egitea, azken borondateak bere mesedetan alda ditzan.
- Jabetzak hil aurretik lagatzea: Adinekoa higiezinak edo ibilgailuak dohaintzan ematera behartzea, esanez dagoeneko behar ez dituela edo zaintzak ordaintzeko dela.

Ordezkaritza-ahalordeak gehiegikeriaz erabiltzea

Notario-ahalordeak, prebentziozko ahalordea barne hartuta, tresna legitimoak dira ondarea kudeatzen laguntzeko. Hala ere, batzuetan, ahalordedunak gehiegikeriaz erabil ditzake, bere mesedetan edo adinekoaren interesen kontra; adibidez, adinekoaren izenean aktiboak likidatzea edo zorrak sortzea, hark eragiketaren irismena ulertu gabe.

Baliabide ekonomikoak bidegabe kontrolatzea edo baliabide ekonomikoetarako irispidea mugatzea

Abusu ekonomikoko beste molde bat da adinekoari bere baliabide ekonomikoak eskuratzeko bidea mugatzea, eta, ondorioz, galaraztea dirua kudeatu edo bere ondareari buruzko erabakiak hartzea.

Kontrol mota hau ezar daiteke, baita ere, banku-txartelak atxikiz, finantzei buruzko informazioa ezkutatuz edo kontuak beste batzuek bakarrik kudeatuz, titularrak benetan parte hartu gabe.

Ezezagunek iruzur egitea (iruzurrak eta maulak)

Ezezagunek, arrakala digitalaz eta adinekoen zaurgarritasun kognitiboaz baliatuta, haien ondasunak edo kapitalak bereganatzeko jokabideak izaten dituzte.

- "Ingeniaritza sozialeko" maulak: Iruzur telefoniko edo digital hauetan (phising), ezezagunek banku-erakunde batekoak edo zerbitzu publiko batekoak direlako itxura egiten dute, gakoak lortzeko.
- Ziri espezifikoak: "Maitasunaren ziria" (romance scams) edo zozketa faltsuak; horrelakoetan, adinekoaren bakardadea esplotatzen da, transferentzia errepikakorrak eskatzeko.
- Etxez etxeko salmenta oldarkorrak: Adinekoa behartzen dute alferrikako zerbitzu edo produktuen kontratuak sinatzera, salmenta-teknika hertsatzaileen bidez.

Adinekoaren zaintzaileek edo arduradunek zabarkeria ekonomikoz jokatzea

- Betebeharrak ez ordaintzea: Zaintzaileak, adinekoaren funtsetarako sarbidea daukanez, argiaren, uraren edo komunitatearen fakturak ordaintzeari uzten dio, eta, horren ondorioz, etxebizitzaren bizigarritasuna arriskuan jartzen da, edo, bestela, adinekoa etxegabetzen dute, hark direnik ere ez dakien zorrengatik.

Familiak edo ezagunek manipulatzea eta konfiantzaz abusatzea

Jokabide hauek pixkaka gertatzen dira, ez oso agerian, eta, beraz, zaila izaten da banku-erakundeek edo bestelako profesionalek goiz detektatzea. Baliteke adinekoak hasieran egoera abusuzkotzat ez jotzea edo, bestela, haiek salatu nahi ez izatea afektibitate-arrazoiengatik, familiarekiko leialtasun-sentimenduengatik edo gatazkarekiko beldurragatik.

Finantza-esplotazioko kasu gehienetan, egilea zuzeneko senide bat izaten da. Ikusi denez, senideek edo ezagunek egindako abusuen % 87,5 ez dira salatzen; erasotzailea ezezaguna denean, baina, kasuen % 33 soilik geratzen dira salatu gabe (Arcierno et al., 2020, hemen aipatu moduan: PMC, 2023).

2.2. EPIDEMIOLOGIA ETA PREBALENTZIARI BURUZKO DATUAK

Tratu txar ekonomikoen prebalentzia neurtzeko, aurre egin behar zaie zenbait erronka metodologikori, oso-oso kasu gutxi erregistratzen direlako. Halere, azterlan berrienek erradiografia kezkagarri bat erakusten dute:

Munduko eta eskualdeetako prebalentzia: Osasunaren Mundu Erakundeak (OME, 2024) zenbatesten duenez, 60 urte baino gehiagoko sei lagunetik batek abusu motaren bat jasan du azken urtean. Finantza-esplotazioak % 6,8ko prebalentzia-tasa zenbatetsia dauka munduan; alabaina, lege-babes gutxiagoko eskualdeetan, zenbaki hori % 11,7ra iristen da (Li et al., 2025). 35 herrialderi buruzko 94 azterlanen berrikuspen sistematiko eta metaanalisi batek zehaztu zuen ezen, mundu mailan, esplotazio finantzario edo materialaren prebalentzia % 11,7koa dela (% 95eko konfiantza-tartea: 8,5-14,9). Azterlan horretan nabarmentzen denez, Hego Amerikak dauka eskualde-tasa altuenetako bat; are, aztertutako testuinguru batzuetan, % 42koa da.

Egoera Espainian: Adineko Aktiboen Estatuko Konfederazioaren (CONFEMAC, 2025) datuek adierazten dute urtean 650 dei baino gehiago jasotzen dituztela tratu txar finantzarioen susmoengatik. Lehen Mailako Arretan egindako ikerketa batzuek diotenaren arabera, instituzionalizatuta ez dauden pazienteen % 11,3 egon daitezke tratu txarrak jasotzen (susmoa dago), eta osagai ekonomikoak izan du hazkunderik handiena (Gisbert-Raya et al., 2024). Arriskua askoz handiagoa da emakumeengan eta mendekotasun handia dutenengan. 2021ean, Espainiako ikertzaile batzuek azterlan multizentriko bat egin zuten Lehen Mailako Arretako 65 urtetik gorako paziente ez-instituzionalizatuekin, eta tratu txarren susmoaren prebalentzia % 11,3koa zen. Espainiako familia-eremuan egindako berrikuspen sistematiko batzuek iradokitzen dutenez, tratu txarren susmoa (tratu txar ekonomikoak sartuta) % 16,8ra iristen da autonomia-erkidego jakin batzuetan; hala ere, azterlan homogeneoak falta direnez, oso zaila da Espainiarako zifra bakar bat ematea.

Epe luzeko eragina: 2021ean, hamar urteko luzetarako azterlan bat egin zuten Estatu Batuetako adinekoen lagin batekin, eta % 8,5eko intzidentzia metatua zenbatetsi zuten finantza-abusurako. Azterlanak identifikatu zuenez, osasun eskasaren pertzepzioa arrisku-faktore bat da, eta hirukoiztu egiten du horrelako tratu txarrak jasateko aukera.

Inpaktu ekonomikoa: Ingurune garatuetan, finantza-esplotazioak 28.000 milioi dolar galarazten ditu urtean, eta bost adinekotik bati eragiten dio (APA, 2022).

2.3. TRATU TXAR EKONOMIKOEN ONDORIOAK: INPAKTU BIOPSIKOSOZIALA ETA KOMORBILITATEA

Tratu txar ekonomikoek, banku-kontuak husteaz gainera, azkarrago narriatzen dituzte osasun fisikoa eta psikikoa. Ikertzaileek "zaurgarritasun-espiral" bat identifikatu dute biktimizazio finantzarioaren ondoren.

Ondorio psikologikoak eta osasun mentala

Konfiantzazko pertsonek egindako abusuak trauma eragiten du, traizioagatik, eta honela agertzen da:

- Depresioa eta antsietate akutua: Finantza-abusuaren biktimek suizidio-ideiagintzaren askoz ere tasa altuagoak eta depresio-nahasmendu handiagoak izaten dituzte, bestelako lapurreten biktimekin alderatuta (Burnes et al., 2021).
- Erruduntasuna eta lotsa: Biktima errudun sentitzen da bere "inozentziarengatik" edo senideak izandako jokaeragatik, eta horrek defentsazko bakartze soziala eragiten du, susperraldia zailduz.
- Segurtasun-sentsazioaren galera: Ondarea galtzearen ondoriozko trauma osteko estresak (izan ere, ondareak etorkizuneko segurtasuna irudikatzen du) azkartu egiten ditu nahasmendu-egoerak eta etsipen ikasia.

Ondorio fisikoak eta komorbilitatea

Baliabideak galtzearen ondoriozko estres kronikoak zuzenean eragiten dio adinekoaren fisiologiari:

- Narriadura kognitiboa azkartzen da: Kortisola (estresaren hormona) luzaroan altu edukitzeak hipokanpoaren atrofia azkartzen du, eta, beraz, aurretik bazen dementziaren edo narriadura kognitiboaren sintoma arinek okerrera egiten dute (Han et al., 2023).
- Nahasmendu psikosomatikoak eta kardiobaskularrak: Zuzeneko korrelazioa dago tratu txar finantzarioen eta arteria-presioaren gehikuntzaren, gertakari kardiobaskularren (iktusa/bihotzekoa) eta loaren nahasmenduen artean.
- Eragindako zabarkeriaren ondoriozko hauskortasuna: Funtsez gabetzen direnean, adineko askok "hauskortasun-turrusta" jasaten dute, ezin izaten dituztelako ordaindu medikazio egokia, protesiak, audifonoak edo kalitateko elikagaiak. Horrek erortzeko eta behin eta berriro ospitaleratzeko arriskua handitzen du (Weissberger et al., 2024).

Hilkortasuna areagotzea

- Luzetarako zenbait azterlanek egiaztatu dutenez, finantza-esplotazioa jasaten duten adinekoei hiru aldiz areagotzen zaie heriotza-arriskua abusua pairatu eta hurrengo hiru urteetan, osasun fisikoa narriatzen zaielako eta ez dutelako zainketa aringarri edo prebentiboetarako baliabiderik (Burnes et al., 2021).

3. TRATU TXARRAK PREBENITZEA: ARRISKU-FAKTORE MULTIDIMENTSIONALAK DETEKTATZEA

Gobernuek (gure kasuan, Eusko Jaurlaritzak) helburu dute adinekoen aurkako tratu txar ekonomikoak edo finantza-abusuak prebenitzea. Horretarako, jakin behar da zein diren min ematen duten egoera horien arrisku-faktoreak, eta, ahal izanez gero, faktoreotan eragin. Hainbat azterlanek erakutsi dute zein diren faktoreok.

3.1. ADINEKOEN ZAURGARRITASUN NEUROKOGNITIBOA

Ikerketak egiaztatu duenaren arabera, esplotazio-arriskua ez dago dementzia larria edukitzearen mende soilik, bestelako gainbehera kognitibo sotil batzuk ere iragarle kritikoak dira-eta:

- Finantza-anosognosia: Adinekoa ez da gai onartzeko kudeaketa-trebetasunak gutxiagotzen ari zaizkiola. Hauxe da biktimizazio-iragarle latzena, norbanakoak gehiegi estimatzen baitu bere kontrola, arriskuaren gainetik (Boyle et al., 2025).
- Neurona-sarearen narriadura: Kortex prefrontal medialean eta aurreko intsulan gertatzen diren aldaketa neurobiologikoek murriztu egiten dute "arriskua sentitzeko" edo besteengan ezmoraltasun-seinaleak detektatzeko gaitasuna (Han et al., 2023).
- Zenbakien arloko hauskortasuna eta narriadura kognitibo arina: Adierazle goiztiar bat da zenbakizko kontzeptuak eta ehunekoak maneiatzeko gaitasuna galtzea. Narriadura kognitibo arina daukaten pertsonek lau aldiz aukera gehiago dauzkate Alzheimer-en gaixotasuna izateko (Weissberger et al., 2024).

3.2. ARRISKU-FAKTORE PERTSONAL ETA BIOGRAFIKOAK

- Bakartze soziala: Estimulazio sozialik ez edukitzeak azkartu egiten du ikuskapen-sare exekutiboaren gainbehera, eta, beraz, handitu egiten da "eragin bidegabearen" bidez manipulatzeko aukera. Kanpoan babes-sarerik ez izateak erasotzaileari modua ematen dio erabateko kontrola edukitzeko informazio-fluxuaren eta baliabideen gainean, lekukorik gabe.
- Mendekotasun funtzionala: Oinarrizko jarduerak egiteko laguntza behar izateak adinekoak behartzen ditu bankuko gakoak, pasahitzak eta lege-dokumentuak beste batzuei ematera (Spreng et al., 2024).
- Duela gutxiko alarguntasuna: Doluak zaurgarritasun emozionala sorrarazten du, eta erasotzaileak egoera horretaz baliatzen dira, "lagun berriaren" edo senide "onberaren" itxurak eginez.

3.3. GIZARTEKO DISKRIMINAZIO-FAKTOREAK: ADINKERIA ETA KAPAZITISMOA

Tratu txar ekonomikoak ez dira hutsune biologiko batean gertatzen: zahartzaroa gutxiesten duen gizarte-egitura batean sostengatzen dira. Ikertzaileek finantza-esplotazioa betikotzen duten hiru faktore kritiko identifikatu dituzte:

- Adinkeria (ageism) eta finantza-bazterketa. Adinkeria da pertsonei adinaren arabera aplikatzen zaizkien aurreiritzien eta estereotipoen multzoa. Ekonomiaren eremuan, honetan datza:
  - Haurrak balira bezala tratatzea: Senideek edo bankuko langileek goitik beherako tratua ematen diote adinekoari, iritzita ezin dituela finantza-kontzeptuak ulertu. Horren ondorioz, haien ordez hartzen dituzte erabakiak, laguntza eman beharrean (laguntzea litzateke, adibidez, informazioa ematea, gastuak harekin batera aztertzea, finantza-aholkulari batengana laguntzea...).
  - Arrakala digital hertsatzailea: Banku-zerbitzuen digitalizazio behartuak (hots, trantsizio egokirik gabeak) beste pertsona batzuekiko mendekotasuna eragiten dio adinekoari, eta haien esku uzten ditu gakoak eta gailuak, adibidez. Ondorioz, errazagoa da pertsona horiek bere kontuetara baimenik gabe sartzea (ELGA, 2023).
- Desgaitasunean oinarritutako diskriminazioa eta kapazitismoa. Egiturazko kapazitismoaren ondorioz, oro har balioesten da edozein gainbehera fisiko edo sentsorialek (entzumena, ikusmena edo mugikortasuna galtzeak) berez dakarrela ezintasun mentala. Horren ondorioak dira:

- Kontsultan edo bulegoan ikusezinak izatea: Profesionalek laguntzaileari hitz egiten diote, titularrari beharrean, adinekoaren nahiei jaramonik egin gabe; beraz, errazagoa da laguntzaileak informazioa edo baimena manipulatzea.

- Mendetasunaren Legeaz abusatzea: EAEko testuinguruan, ikusi dugu askotan senideek kudeatzen dituztela adinekoak mendekotasunagatik jasotzen dituen dirulaguntzak eta, halaber, baliabideok ez dituztela bideratzen adinekoa zuzenean zaintzera; diru-sarrera horiek "familiako soldatatzat" jotzen dituzte (Gisbert-Raya et al., 2024).

- Zaintzaren truke zerbait jaso behar delako estigma. Tratu txar finantzarioen faktore sozial espezifiko bat da uste izatea adinekoaren aktiboak (bereziki, etxebizitza eta pentsioa) jaraunsleei dagozkiela berezko eskubidez, adinekoa artean bizirik dagoela. Familiako adinkeriaren bidez, adinekoaren funtsez jabetzeko ekintza justifikatzen da, jasotako "zaintzengatiko ordainketa" delako premisaren pean; horrela, deuseztatu egiten da adinekoak bere aurrezkien gainean daukan autonomia.

Aipatutako arrisku-faktoreetan oinarrituta, duela gutxiko ebidentzia zientifikoaren araberako adierazleek edo alerta-seinaleek (*red flags*) erakusten digute zer alderdi behatu eta detektatu behar diren, gero esku hartzeko (Boyle et al., 2025; Spreng et al., 2024). Gehienbat, hauexek dira:

3.4. FINANTZA-AHALMENAREN GAINBEHERA-ZANTZUAK

- Finantza-anosognosia eta zorrak: Adinekoa tematuta dago bere kontuak oso ondo maneiatzen dituela, nahiz eta ebidentziek erakusten duten ordaindu gabeko fakturak daudela edo oinarrizko zerbitzuak moztu dizkiotela (Boyle et al., 2025).
- Kontzeptuen nahastea: Bat-batean, zailtasunak dauzka oinarrizko kontzeptuak ulertzeko, hala nola banku-interesak, kreditu-txartelaren eta zordunketa-txartelaren arteko desberdintasuna edo diru kopuru handien balio erlatiboa.
- Akatsak zenbakien arloko zereginetan: Ez da gai kalkulu errazak egiteko edo dokumentuak koherentziaz sinatzeko (Wood et al., 2025).

3.5. JOKAERA KEZKAGARRIAK BESTEEKIKO HARREMANEAN

- Bidelaguntza hertsatzailea: Adinekoa senide edo "lagun" batek lagunduta joaten da sukurtsalera edo kontsultara, eta azken horrek ez dio uzten hitz egiten edo sistematikoki erantzuten du bere ordez.
- Eragin bidegabea: Bat-batean, aldaketa drastikoak egin ditu testamentuan, aseguruen onuradunetan edo notario-ahalordeetan; bereziki, "hurbileko berri bat" edo zaintzaile berri bat agertu denean.
- Pixkanakako bakartzea: Zaintzaileak edo senideak galarazi egiten dio hurbileko beste pertsona batzuekin telefonoz hitz egitea edo egotea, alegatuz adinekoa nekatuta dagoela edo ez duela inor ikusi nahi.

3.6. ANOMALIAK EKONOMIA-JARDUERAN

- Ezohiko gastuen patroiak: Adinekoaren bizimoduarekin bat ez datozen diru-ateratzeak edo kontu ezezagunetarako transferentziak (maiz, atzerrian edo kriptoaktiboetan).
- Ohiz kanpoko sinadura: Aldaketak egon badira lege- eta banku-dokumentuak sinatzeko moduan edo kaligrafian, baliteke presio fisikoa edo faltsifikazioa egotea.
- Oinarrizko intsumoen falta: Diru-sarrera nahikoak eduki arren (pentsio handia), adinekoak ez dauka arropa egokirik, medikamenturik edo elikagairik; horrek iradokitzen du haren baliabideak desbideratzen ari direla.

4. TRATU ONAK. ADINEKOEI HARRERA ONA EGITEA, BEREZIKI ZAURGARRIAK DIREN BANKU-BEZEROTZAT HARTUTA.

Testuinguru honetan, batez ere banku-erakundeek eta oinarrizko gizarte-zerbitzuek detektatzen dituzte adinekoen aurkako tratu txar ekonomikoen arrisku-faktoreak. Banku-ingurunean adineko zaurgarriei eman beharreko tratu onei heldu nahi diegu, uste dugulako bankuko enplegatuak ezinbesteko agenteak direla tratu txarrak prebenitzeko eta, egotekotan, tratu txar horiek goiz detektatzeko.

Eskarmentuak erakutsi digunez, hasierako harrera- eta arreta-fasea oso-oso garrantzitsua da. Bezeroari ematen zaion tratua erabakigarria izan daiteke bai eragiketak ondo ulertzen dituela bermatzeko, bai egon litezkeen zaurgarritasun-egoerak edo abusu ekonomikoko egoerak detektatzeko.

Hori dela-eta, komenigarria da profesionalek, adinekoekin aritzen direnean, arreta indartuko irizpideak erabiltzea, zeinak printzipio hauetan oinarritzen baitira:

4.1. TRATU BEGIRUNETSU, HURBIL ETA PERTSONARI EGOKITUA EMATEA.

Arreta pazientziaz eman behar da, hizkuntza argia erabiliz, alferrikako teknizismoak saihestuz eta pertsonak eman zaion informazioa ulertzen duela egiaztatuz. Harrera ona egiteak modua ematen du konfiantzazko giroa sortzeko; horrela, errazagoa izango da adinekoak egoera arazotsuen berri ematea. Hobe da ingurune lasai batean egotea, bezeroak presiorik gabe adieraz dezan zer zalantza edo kezka dauzkan. Adinekoei aurrez aurreko arreta egokia eman behar zaie, baliabideak kudeatzea zailduko dioten oztopo teknologikoak kenduta.

4.2. EGON LITEZKEEN ZAURGARRITASUN-EGOERAK IDENTIFIKATZEA.

Erakundeko langileak adi egon behar du zenbait adierazletara, iradoki dezaketelako adinekoak gauzak ulertzeko zailtasunak dauzkala, finantza-gaiak kudeatzean beste batzuekiko mendekotasuna daukala edo finantzen arloko jokaera-patroietan ezohiko aldaketak egin dituela.

4.3. GARDENTASUNA ETA INFORMAZIO ULERGARRIA AREAGOTZEA.

Bezeroa adinekoa denean, argi eta garbi azaldu behar zaizkio dokumentuak, produktuak, kontratuak edo eragiketak, eta funtsezko informazioa (eragiketaren arriskuak, kostuak, ondorioak) ulertzen duela ziurtatu.

4.4. ADINEKOEN AUTONOMIA ERRESPETATZEA.

Adinak, berez, ez du erabakiak hartzeko ezgaitzen. Langileak erabaki informatuak hartzen lagundu behar dio adinekoari, jarrera paternalistak saihestuz, baina, aldi berean, besteen eragin bidegabe posibleei arreta jarriz.

5. TRATU TXAR EKONOMIKOAK EDO FINANTZA-ABUSUA DETEKTATZEA: ADIERAZLEAK ETA ERREMINTAK

Bistan denez, tratu txar ekonomikoekin eta finantza-abusuarekin adinekoei eragiten zaien kalteak halabeharrezkoa egiten du agintari publikoek eta tartean diren erakunde eta agente guztiek prozesuak abiaraztea esplotazio hori prebenitu eta detektatzeko eta, gero, esku hartzeko. Horixe da, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzaren gida honen azken helburua.

Bada, alerta-seinale edo adierazle batzuk aipatuko ditugu orain, notariotzetako, banku-erakundeetako eta gizarte-zerbitzuetako langileek kontuan har ditzaten lehen azaldutako arrisku-faktoreak biltzeagatik zaurgarriak izan daitezkeen adinekoak behatzean, kalte ekonomikoko egoerak detektatzeko.

5.1. ABUSU EKONOMIKO POSIBLE BATEN ADIERAZLE OPERATIBOAK

Adierazle operatibo nagusien artean, hauek nabarmentzen dira:

- **Bankuaren jardunean ezohiko aldaketak egotea**
  - Bat-batean, eskudiru gehiago ateratzen hasi da, eta hori ez dator bat aurreko ohiturekin.
  - Beste batzuen kontuetara transferentzia sarriak edo zenbateko handikoak egiten ditu; bereziki, beste hartzaile horiek senideak edo ingurukoak direnean.
  - Adinekoak bere egoera ekonomikoarekin edo ohiko premiekin bateraezinak diren eragiketa ekonomikoak egiten ditu.
  - Hainbat aldiz egiten dituen banku-mugimenduek azkar murrizten dituzte ondarea edo pilatutako aurrezkiak.

- **Erakundearekiko harremanean beste batzuek nagusitasunez esku hartzea**
  - Senide edo laguntzaile bat agertzen da beti, eta adinekoaren ordez erantzuten du, edo erakundeko langilearekin zuzenean aritzeko gaitasuna murrizten dio.
  - Beste batek presa edo presioa ezartzen dio finantza-eragiketa jakin batzuk egiteko.
  - Laguntzaileak bakarrik eskatzen du zenbait eragiketa egitea, nahiz eta adinekoa aurrean egon.

- **Ondarearen titulartasunean edo ondarea kudeatzeko tresnetan aldaketa garrantzitsuak egitea**
  - Bat-batean, eskaera egin du banku-kontuetan titular edo baimendu berriak sartzeko.
  - Dirua eskuratzeko ahalorde zabalak eman dizkie senideei edo inguruko beste pertsona batzuei, azalpen argi edo koherenterik egon gabe.
  - Aldaketak egin berri ditu finantza-produktuen edo aseguruen onuradunen izendapenean, baina ez du ematen adinekoak aurretik adierazitako erabakiei erantzuten dietenik.

- **Gauzak ulertzen ez dituelako edo onespen informaturik eman ez duelako zantzuak egotea**
  - Adinekoak adierazi du nahastuta dagoela egiten ari den eragiketekin.
  - Ageriko zailtasunak dauzka finantzen inguruko erabaki jakin batzuen irismena ulertzeko.
  - Eragiketa baten helburuaz galdetzean, zalantza, deserosotasuna edo kontraesanak ageri dira.
  - Adinekoa presiopean edo beste batzuen jarraibideei jarraikiz ari dela ematen du.

- **Notariotzetan,** dokumentuak prestatzean edo sinatzean ager daitezke zantzu horiek, hala nola ahalordeetan, dohaintzetan edo testamentu-aldaketetan.

5.2. EGITEZKO ZAINTZAREN GARRANTZI BEREZIAZ JABETU ETA BANKU-EREMUAN AITORTZEA

Eguneroko jardunean, egitezko zaintza da adinekoari laguntzeko figura ohikoenetako bat. Egoera horretan, pertsona batek (oro har, senide edo hurbileko batek) laguntza ematen dio beste bati, bizitza pertsonalaren edo ondarearen zenbait alderdi kudeatzeko; pertsonaren kudeaketa ekonomikoan, hainbat laguntza-maila izan ditzake. Ekonomia-eremuan, egitezko zaintzaileak lagunduaren eguneroko premien kudeaketa arruntarekin lotutako jarduketak egiten ditu, betiere haren nahiak eta lehentasunak errespetatuta.

Indarreko legediak laguntza-neurri informal eta naturaltzat jotzen du egitezko zaintza, eta neurri judizialei lehenetsi behar zaie, baldin eta nahikoa eta egokia bada pertsonaren premiak asebetetzeko.

Egitezko zaintzailea agertzen bada, zuhur jokatu behar da; bereziki, titularraren izenean jarduten ari denak ez daukanean formalki egiaztatutako ordezkaritzarik. Ez dago egiaztapenari buruzko ahobatezko irizpiderik; halere, "erantzukizunpeko adierazpenaren" bidez, asko egin da aurrera legegilearen helburua betetzeko.

Estatuko Fiskaltza Nagusiak eta banku-elkarteek sinatutako protokoloei esker, hainbat interpretazio-tresna garatu dira, bai kasu horietan bankuaren jarduna errazteko, bai ekonomia-jarduketa arrunt batzuk baimentzeko, bai ondare-arloan garrantzi handiagoa duten eragiketei mugak ezartzeko.

Egitezko zaintzari buruzko protokoloak (2025eko maiatzean eguneratu zen), zehazki, "garrantzi ekonomiko eskasaren" muga argitzen du, zeinean egitezko zaintzaileak ez baitu baimen judizialik behar, "*mugaren gaineko ikuspegi zabalarekin; izan ere, hala izan ezean, ikuspegi murriztaile batek jarduteko tarte urria utziko lioke egitezko zaintzaileari, eta horrek ez luke bat egingo erreformaren printzipio orokorrekin*".

Orientabide horien arabera, egitezko zaintzaileak eguneroko kudeaketa-eragiketa jakin batzuk egin ditzake baimen judizialik gabe (*"jardunbide onen esparruan, esan daiteke "garrantzi ekonomiko eskasaren" kontzeptuaren pean mugatutako eremuaren barruan sartzen dela zainduaren diru-sarrerei eta, bat etorrita haren bizi-ibilbidearekin, ohiko gastu arrunten arretari dagokien jarduketa oro. Halaber, barruan sartzen da zainduaren ohiko premiak asebetetzeko behar diren elementuen ohiko kontserbaziorako ezohiko gastuen arreta ere. Halakotzat hartzen dira, lehenik, kontuan edo faktura-kontra egindako ohiko karguei dagozkien gastu edo diru-ateratze finalistak, oinarrizko premiak (zaintza pertsonala, bizitokia, elikadura, jantziak edo osasuna) estaltzeko direnak; bigarrenik, ondarearen kontserbazio arrunterako gastuak, zaintza-premietarako erabili ahal izateko behar den neurrian; hirugarrenik, oinarrizko horniduren eta zerbitzuen ordainketak, eta, azkenik, zaintzarako funtsezkoak izan ez arren adinekoaren nahiekin eta lehentasunekin bat datozen eta aurreko bizi-ibilbidean finkatu diren bestelako gastuak, baldin eta bateragarriak badira haren baliabide eta aukerekin. Diru-ateratze ez-finalistetan (babes modura, ulertuta egitezko zaintzaileak normalean ez duela kudeaketaren kontu-emate judizialik egingo), ezinbestekoa da, jardunbide on gisara, erreferentziazko muga kuantitatiboak ezartzea. Ondorio horietarako, baliagarriak dira, jarraibide edo gutxi gorabeherako kuantifikazio gisa, Estatistikako Institutu Nazionalak pertsonako edo familiako batez besteko gastuari buruz aldizka argitaratzen dituen estatistika-indize ofizialen ondoriozkoak (hurrengo urteko lehenengo seihilekoan mugaeguneratzen dira). Erreferentzia horiek, halere, malgutu egin ahalko dira kasu zehatzaren inguruabarren, baliabideen eta premien arabera*"); garrantzi ekonomiko handiagoko eragiketetan, berriz, baimen judiziala edo kontrol-mekanismo gehigarriak behar dira.

Prebentzioari begiratuta, garrantzitsua da profesionalek kontuan hartzea familiako edo konfiantzazko lotura egoteak ez duela baztertzen abusu ekonomikoa egoteko aukera eta, gainera, hain zuzen ere testuinguru horietan gertatzen direla horrelako egoera gehien.

5.3. TRATU TXARRAK DETEKTATZEKO ERREMINTA BATZUK

- **EAEko adineko pertsonenganako tratu txar fisiko eta ekonomikoak prebenitu eta detektatzeko prozedura (2015, 2019an eguneratua)**

Euskal Autonomia Erkidegoan, adinekoen aurkako tratu txar fisiko eta ekonomikoak prebenitu eta detektatzeko prozedura bat dago, Eusko Jaurlaritzak sustatua, eta helburu du tratu txarren detekzio goiztiarra hobetzea, profesionalen artean jarduteko irizpide komunak ezartzea eta erakundearteko koordinazioari laguntzea. Gure ingurunean, erreminta hori da —narriadura kognitiboagatik edo bestelakoengatik— gauzak ulertzeko edo erabakitzeko gaitasuna mugatuta duten adinekoekin erabil daitekeen lehenengoa.

Erremintak bi galdetegi dauzka; lehenengoa arrisku-faktoreei buruzkoa da, eta bigarrena tratu txarren adierazleei eta alerta-seinaleei buruzkoa. Prozeduraren arabera, bi arrisku-faktore edo gehiago badaude, komenigarria da pertsona hori bultzatzea bere zonako gizarte-langilearekin hitzordua eskatzera, erremintak berak barruan dakarren onespen informatua sinatu ondoren, egoeraren azterketa osoa egin dezan, kalte finantzarioez gainera beste kalte mota batzuk egon daitezke-eta (psikologikoak, fisikoak eta abar).

Era berean, prozedurak deribazio-mekanismoak jasotzen ditu arrisku-egoerak edo tratu txarren zantzuak detektatzen direnerako.

Banku-erakundeetako, notariotzetarako eta gizarte-zerbitzuetako profesionalentzat, esparru instituzional hau bereziki garrantzitsua da, bidea jartzen duelako adinekoen aurkako esplotazio ekonomikoko zantzuak daudenean lankidetzan aritzeko gizarte-zerbitzuekin eta eskudun agintariekin.

Erreminta Eusko Jaurlaritzaren web-orrian deskarga daiteke: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_ss/eu_publica/adjuntos/personas%20mayores19EU_web.pdf Interesgarria denez, prebentzioari eta arrisku-faktoreen detekzioari buruzko bi galdetegiak ekarri ditugu hona:

1. GALDETEGIA:TRATU TXAR EKONOMIKOEN ARRISKU-FAKTOREAK				
ADINEKOAK DAUZKAN ARRISKU-FAKTOREAK		**BAI**	**EZ**	**EZ DAKIT**
Ez jakitea zein den bere egoera ekonomikoa, eta horregatik kezkatzea				
Zorrak, aurrez uste izan arren baduela bere gastuei aurre egiteko ahalmen ekonomikoa				
Dohaintzak eta ondasun-eskualdatzeak				
ARRISKU-FAKTOREAK ADINEKO PERTSONAREN INGURUNEAN		**BAI**	**EZ**	**EZ DAKIT**
Adineko pertsonaren baliabide ekonomikoekiko oso mendekotasun handia				
Gatazka-aurrekariak finantza-kontuengatik				
Zaintzaileak neurriz gaineko interesa izatea adineko pertsona zaintzeaz arduratzeko				
OHARRAK: beste arrisku batzuk, adinekoaren egoera ekonomikoari buruzko iruzkinak...				

TRATU TXAR EKONOMIKOEN ADIERAZLEAK DETEKTATZEKO eta haien LARRITASUNA NEURTZEKO galdetegia			
ADIERAZLE OROKORRAK	**BAI**	**EZ**	**EZ DAKIT**
Osasuna etengabe galtzea ageriko kausarik gabe			
Etxebizitzaren bizigarritasun-egoera txarra (segurtasunik eza, zikinkeria, barrerak eta abar), edo adineko pertsonaren beharrak betetzea bermatzeko beste baldintza edo laguntza batzuk behar adina ez izatea			
Beldurra, ez dutela ondo tratatzen esatea, edo horretaz kexatzea, jarrera eta/edo nahi duena adierazteko modua aldatzea pertsona edo zaintzaile jakin batzuk daudenean			
Setakeria terapeutikoa eta tratamenduen eta zaintzen neurriz gaineko erabilera (larrialdietako zerbitzuak, psikofarmako gehiegi...)			
Oinarrizko premiez arduratzeari uztea			
Adineko pertsona zerbitzu sozio-sanitario batean abandonatzea: ospitalea, oinarrizko gizarte-zerbitzua, anbulatorioa...			

GIZARTE-ADIERAZLEAK	**BAI**	**EZ**	**EZ DAKIT**
Zerbitzu batean alta eskatzea (egoitza, egoitza-unitate sozio-sanitarioa...), edo uzkurtasuna profesionalen esku-hartzearen aurrean, kaltea dagoenean, edo kaltea izateko arrisku larria, agindu sanitario edo sozialaren aurka, edo haren nahiaren aurka			
Murrizketak etxebizitzako lekua erabiltzean, eta mugak bizikide dituen gainerakoekin harremana izatean			
Gizarte-harremanetatik nahita urruntzea, eta arrazoirik gabe konfinatzea			

ADIERAZLE EKONOMIKOAK	**BAI**	**EZ**	**EZ DAKIT**
Adineko pertsonak, narriadura kognitiborik izan gabe, kexatzea bere gauzak ukitzen dituztelako baimenik izan gabe; bitxiak desagertzea eta abar			
Adineko pertsona legez ezgaitzeko eskaria egitea, hori oinarritzeko txosten medikorik edo psikologikorik izan gabe			
Ordaindu gabeko fakturak, pertsonak ahalmen ekonomikoa izan arren			
Oinarrizko gauzak ez izatea, ahalmen ekonomikoa izan arren			
Baimenik gabe eta adostasun akastun bidez jabetzea adineko pertsonaren ondasunez			
Dirua edo txekeak modu ulertezinean galtzea, bat-batean arrotzei transferentziak egitea eta abar			
Aldaketak lege- eta/edo finantza-dokumentuetan: sinadura susmagarriak; testamentuak berriki egitea edo aldatzea, ahalordeak besterentzea, dohaintzak eta abar, adineko pertsonak erabakiak hartzeko gaitasuna izan gabe			
Jabetzan dituenen eta ondasunen aurkako banku-abalak ematea, baldintzen eta arriskuen berri izan gabe			

BESTE ADIERAZLE EDO IRUZKIN BATZUK. Oso garrantzitsua da zure ustez interesgarria den edozein ohar idaztea ebaluatu duzun pertsonaren inguruan: beste adierazle batzuk, haietako baten azalpena, adineko pertsonak bereizgarri dituen kontuak eta abar.

- **Ulertzeko eta erabakitzeko gaitasuna oso mugatuta ez daukaten adinekoentzako E-FINDEX protokoloa (Elder Financial Exploitation Measure; APA, 2022).**

Erreminta erabili ondoren, profesionalek ikusten badute adinekoak ez daukala mugatuta ulertzeko eta erabakitzeko gaitasuna, adinekoari elkarrizketa bat eginez detekta daiteke tratu txarrak pairatzen ari den.

Elkarrizketa-eredu labur bat ekarri dugu hona, ulertzeko eta erabakitzeko gaitasuna oso mugatuta ez daukaten adinekoentzako E-FINDEX protokoloan oinarritua (Elder Financial Exploitation Measure); halaber, American Psychological Association elkartearen adierazleak jaso ditugu (APA, 2022).

A elkarrizketaren gidoiak hiru bloke dauzka:

1. blokea: Autonomiaren eta ezagutzaren baheketa (gaitasun kognitiboa)

Helburua: Detektatzea ea adinekoak bere finantza-mugimenduak ulertzen dituen.

Normalean nor arduratzen da zure fakturak ordaintzeaz edo bankura joateaz?

- *Bankuko laburpenak edo kontuko saldoa ulertzeko zailtasunik atzeman duzu azken aldian?*
- *Azalduko didazu, oro har, zertarako balio izan duen zure kontuan agertzen den azken diru-ateratze handiak?*

2. blokea: Presioaren edo eraginaren detekzioa (gizarte-faktorea)

Helburua: Identifikatzea ea senideek edo zaintzaileek derrigortzen duten.

- *Zure inguruko norbaitek presioa ezartzen dizu egin nahi ez dituzun erosketak, maileguak edo opariak egiteko?*
- *Badago inor zu aurrean egon gabe zure txartela edo libreta erabil dezakeenik?*
- *Dokumenturik sinatu duzu azken aldian (adibidez, ahalorde bat edo testamentu-aldaketa bat), oso eroso sentiarazi ez zaituena edo guztiz ulertu ez duzuna?*

3. blokea: Ongizatearen eta baliabideen adierazleak (emaitzen faktorea)

Helburua: Berrestea ea adinekoaren dirua bere premietara bideratzen den.

- *Dirurik falta zaizu inoiz medikazioa edo elikagaiak erosteko, nahiz eta pentsioa jaso?*
- *Familiako norbait zure mende dago ekonomikoki, eta horrek kezkatu egiten zaitu, edo estresa eragiten dizu?*

Manipulazio edo konfiantza-abusu posiblearen zantzuak detektatuz gero, profesionalek zuhur jokatu beharko dute, eta adinekoaren autonomia errespetatu, zaurgarritasun-egoera posibleari arreta jartzeaz gainera. Egokitzen denean, halaber, barne-kontsultarako mekanismoak aktibatu ahalko dituzte, aholkularitza espezializatua jaso ahalko dute, edo egoeraren berri eman ahalko diete gizarte-zerbitzuei nahiz eskudun agintariei.

Egiazki, prestakuntza eta ardura bereziak behar dira kontzeptuok maneiatzeko eta kontzeptuokin lotutako abusu posibleak detektatzeko.

6. ARAU-ESPARRUA ETA ERAKUNDEEN PROTOKOLO GARRANTZITSUAK

6.1. NAZIOARTEKO ARAUDIA.

Nazioartean, giza eskubideen inguruko hainbat tresna daude adinekoak babesteko abusuzko egoeretatik, esplotaziotik edo tratu umiliagarritik.

- Tresna horien artean, **nabarmena da Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa (2006); Espainiak 2007ko azaroaren 23an berronetsi zuen, eta, 2008ko maiatzaren 3tik indarrean dagoenez**, Espainiako barne-zuzenbidearen zati da. Konbentzio horrek ezartzen duenaren arabera, estatuek neurri egokiak hartu behar dituzte desgaitasunen bat duten pertsonak (horien artean, adineko asko daude) babesteko abusu, indarkeria edo esplotazio molde orotatik, esplotazio ekonomikoa barne hartuta. Konbentzioak aitortu egiten du desgaitasunen bat duten pertsonek (narriadura kognitibo edo funtzionala daukaten adineko asko sartzen dira hor) gaitasun juridikoa dutela bizitzako alderdi guztietan, gainerakoen baldintza beretan, eta estatuak derrigortzen ditu gaitasun hori baliatzen laguntzeko sistemak ezartzera.

Funtsezko printzipioen artean, hauek nabarmentzen dira: duintasunarekiko, autonomiarekiko eta erabakiak hartzeko askatasunarekiko errespetua, gaitasun juridikoa baliatzeko laguntzak jasotzeko eskubidea, eta abusuak, interes-gatazkak edo eragin bidegabeak prebenitzeko babes efikazak ezartzeko betebeharra.

Konbentzioak ezartzen duenez, laguntza-neurriek errespetatu egin behar dituzte pertsonaren nahia eta lehentasunak, eta esplotazio ekonomikoko egoerak saihestuko dituzten kontrolen mende egon behar dute.

12.5 artikuluak, zehazki, hau ezartzen du: "*estatu alderdiek egoki eta eragingarri diren neurri guztiak hartuko dituzte, pertsona desgaituen eskubidea bermatzeko, gainerakoen baldintza berberetan, jabe nahiz ondasunen jaraunsle izan daitezen, euren gai ekonomikoak kontrolatu ditzaten eta banku-maileguak, hipotekak eta bestelako finantza-kredituen modalitateak lor ditzaten baldintza berberekin. Halaber, estatu alderdiek zainduko dute pertsona desgaituak nahierara ondasunez gabetuak ez izatea*".

- Halaber, E**makumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitu eta indarkeria horien aurka borrokatzeko Europako Kontseiluaren Hitzarmenak (Istanbulen egin zen, 2011ko maiatzaren 11n, eta Espainiak 2014an berronetsi zuen)** aitortu egiten du zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonak askotariko indarkeria moldeetatik babestu behar direla familiako edo konfiantzazko eremuan.
- Era berean, **Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko maiatzaren 14ko (EB) 2024/1385 Zuzentarauan** (emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurka borrokatzekoan), indarkeria ekonomikoa etxeko indarkeriatzat jotzen da.
- Bestetik, **Ministroen Kontseiluak 2014ko otsailaren 19an estatu kideei emandako CM/Rec (2014)2 gomendioa aipatu behar dugu, adinekoen giza eskubideak sustatzeari buruzkoa**, zeinak azpimarratzen baitu beharrezkoa dela adinekoen aurkako esplotazio ekonomiko eta finantzarioa prebenitzea.

6.2. ESTATUKO UDI GARRANTZITSUA.

• Kode Zibila

Ekainaren 2ko 8/2021 Legeak (Desgaitasunen bat duten pertsonei beren gaitasun juridikoa baliatzen laguntzeko legeria zibil eta prozesala aldatzen duenak) aldaketa sakona egin dio zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonak arlo juridikoan babesteko ereduari.

Arau horrek pertsonaren borondatearekiko, nahiekiko eta lehentasunekiko errespetuan oinarritutako sistema bat sartu du, eta laguntza-eredu bat ezarri lehengo ezgaitze- eta tutoretza-sistemaren ordez, Nazio Batuen Konbentzioko printzipioetan oinarrituta. Laguntza-eredu horren barruan sartzen dira, besteak beste, borondatezko neurriak (hala nola prebentziozko ahalordeak edo aginduak), egitezko zaintza (bereziki sarria da familia-ingurunean) edo neurri judizialak, hala nola laguntza- edo ordezkaritza- kuradoretza edo defendatzaile judiziala (lehentasunez, interes-gatazkak daudenerako). Figura horiek oso garrantzitsuak dira ondare-arloko abusuak prebenitzeko.

Eredu berria funtsezko ideia hauetatik abiatzen da: Pertsona guztiek gaitasun juridiko berbera daukate; pertsona batek gaitasun juridikoa baliatzeko laguntza behar duenean, laguntza-neurri proportzionalak eta bere premietara egokituak eman behar zaizkio; laguntza-neurriek beti errespetatu behar dituzte pertsonaren borondatea, nahiak eta lehentasunak, eta hartzen diren neurriek babesak barnebildu behar dituzte abusuak edo eragin bidegabeak saihesteko.

Erreforma hori bereziki garrantzitsua da, aldatu egin duelako adinekoari laguntzen ari zaizkion senideek edo konfiantzazko pertsonek egindako jarduketak interpretatzeko modua, arreta berezia jarriz egitezko zaintza aplikatzean egindakoei.

- 1/2007 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontsumitzaileak eta Erabiltzaileak Babesteko Lege Orokorraren testu bategina eta beste lege osagarri batzuk onartzen dituena. Berariaz aitortzen du kontsumitzaile zaurgarriaren figura, halakotzat joz, inguruabar pertsonal, ekonomiko edo sozialengatik mendekotasun- edo babesgabetasun-egoeran egonik, eskubideak berdintasun-baldintzetan baliatzeko zailtasunak dituena. (3. artikulua).
- Notariotzaren 1862ko maiatzaren 28ko Legeak 17 bis artikuluan ezartzen duenez, notarioak fede eman beharko du emaileek "bere ustean gaitasuna eta legitimazioa dauzkatela, onespena aske eman dutela eta notario aurrean emandakoa bat datorrela legearekin eta emaileen edo esku-hartzaileen borondate ondo informatuarekin". Notariotzaren Erregelamenduaren (1944ko ekainaren 2ko Dekretuaren) 145. artikuluak, bestalde, gaineratzen du "onespena aske eman dela eta notario aurrean emandakoa bat datorrela legearekin eta emaileen edo esku-hartzaileen borondate ondo informatuarekin".

Ekainaren 2ko 8/2021 Legeak Notariotzaren Legearen 25. artikuluari gaineratutakoa oso baliagarria da, honako hau ezartzen baitu: "*Notarioaren aurrean agertzen diren pertsonek desgaitasuna dutenean, irisgarritasuna bermatzeko, beharrezkoak eta zentzuzkoak diren laguntzak, tresnak eta doikuntzak erabili ahalko dira, hala nola sistema handigarriak eta alternatiboak, braillea, irakurketa erraza, piktogramak, sarbide errazeko gailu multimediak, interpreteak, ahozko komunikaziorako laguntza-sistemak, zeinu-hizkuntza, hizkuntza daktilologikoa, ukimenezko komunikazio-sistemak eta komunikazioa ahalbidetzen duten bestelako gailuak, bai eta beharrezkoa den beste edozein ere*".

Zigor Kodea

Zigor-ordenamenduak delitutzat jotzen ditu adinekoen aurkako tratu txar izan daitezkeen zenbait jokabide. Besteak beste, hauek nabarmentzen ditugu: derrigortze-delitua (172. artikulua), ohiko tratu txarrak edo familia-eremuko indarkeria kasuak (173.2 artikulua); pertsona zaurgarrien abandonua edo babesgabezia (226. artikulua eta hurrengoak), maula-delitua (248. artikulua eta hurrengoak), administrazio desleialaren delitua (252. artikulua) eta jabetze bidegabearen delitua (253. artikulua).

Zigor-figura horiek bereziki aplikatzekoak dira, esplotazio ekonomikoa gertatzen denean konfiantzako, mendekotasuneko edo familia-harremaneko testuinguruetan.

- 41/2002 Oinarrizko Legeak (Pazientearen Autonomia arautzen duenak) ere zeharka laguntzen dio autonomia pertsonalaren babesari, zeinak lotura estua baitauka erabaki aske eta informatuak hartzeko gaitasunarekin.
- Abenduaren 5eko 12/2008 Legeak (Gizarte Zerbitzuei buruzkoak) zerbitzuak jasotzen ditu laguntza psikosoziala eta soziojuridikoa emateko etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima izan diren emakumeei, adingabeei, adinekoei eta desgaitasunen bat duten pertsonei.

6.3. FINANTZA-EREMUKO ARAUDIA ETA POLITIKA PUBLIKOAK

Azkenengo urteotan, finantza-sektoreak hainbat egitasmo garatu ditu adinekoak eta zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonak hobeto babesteko banku-erakundeekiko harremanean.

Testuinguru horretan, **Bankaren Konpromiso Sozial eta Jasangarria Indartzeko Protokolo Estrategikoa** aipatu beharra dago; banku-elkarte nagusiek sinatu zuten, 2021eko uztailaren 23an, Espainiako Gobernuaren eta Espainiako Bankuaren babes instituzionalarekin. Protokolo horrek zenbait neurri jasotzen ditu adinekoei ematen zaien arreta hobetzeko, finantza-zerbitzuetarako irispidea errazteko eta iruzurretatik nahiz abusuetatik babesteko mekanismoak indartzeko.

6.4. MINISTERIO FISKALAREN JARDUKETA-PROTOKOLOAK

Ministerio Fiskalak ere, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren bidez, zenbait egitasmo garatu ditu adinekoak eta desgaitasunen bat duten pertsonak hobeto babesteko ondare-abusuzko egoeretatik.

Zehazki, desgaitasunen bat duten pertsonen eta adinekoen babesean espezializatutako fiskaltzek funtsezko eginkizuna betetzen dute hala ondare-abusu posibleen ikerketan, nola gizarte-zerbitzu eta finantza-erakundeekiko koordinazioan.

Halaber, Ministerio Fiskala eta banku-sektorea lankidetzan aritzeko kanal instituzionalak nabarmentzen dira; Espainiako Bankuak ere parte hartzen du kanal horietan, eta 2023ko uztailaren 19an sinatutako lankidetza-protokoloen bidez formalizatu ziren. Tresna horien helburua da informazio-trukeari bide emateko komunikazio- eta lankidetza-mekanismoak atontzea, pertsona zaurgarriek ondare-abusua, iruzurra edo eragin bidegabea jasan dutelako edo jasaten ari direlako zantzuak detektatzen direnerako (tresna horien artean, bi hauek daude: Lankidetza-protokolo orokorra, desgaitasunen bat edukita edo beste zaurgarritasun-egoera batzuetan egonda banku-produktuen titularrak diren pertsonen ondarea babestekoa, eta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren eta banku-elkarteen arteko esparru-protokoloa interpretatzeko dokumentua, 8/2021 Legean jasotzen den egitezko zaintzari buruzkoa, 2025eko maiatzean eguneratua).

Tresna horiek xede dute pertsona zaurgarriak babestea abusu ekonomikoko egoeretatik eta prebenitzea haien baliabideen erabilera bidegabea, bai eta arrisku-kasuetan informazio-trukeari bide ematea eta finantza-erakundeetarako jarduketa-gidalerroak ezartzea ere.

Hala, banku-erakundeei modua ematen diete titularraren segurtasun ekonomikoa arriskuan jar dezaketen egoeren berri emateko lurraldeko fiskaltza eskudunei, zertarako-eta errazagoa izan dadin egoera horiek goiz detektatzea eta Ministerio Fiskalak babes-jarduketak aktibatzea.

7. FINANTZA-ABUSUA EDO TRATU TXAR EKONOMIKOAK DAUDELAKO SUSMOA DAGOENEAN ESKU HARTZEKO ORIENTABIDEAK

Adinekoa finantza-abusua edo tratu txar ekonomikoak jasaten ari delako egoera posibleak detektatzen direnean, erantzun profesional zuhur, proportzionatu eta koordinatua eman behar da, pertsonaren ondarea eta segurtasun ekonomikoa babesteari begirakoa, aldi berean bermatuz zeharo errespetatuko direla haren autonomia eta norbere baliabideen gainean erabakiak hartzeko eskubidea.

Banku-erakundeek, notariotzek eta gizarte-zerbitzuek toki garrantzitsua dute horrelako egoerak goiz detektatzeko, beren jarduera profesionalari esker ikus ditzaketelako zaurgarritasuneko edo eragin bidegabeko egoerak iradokitzen dituzten ondare-erabakiak, mugimendu ekonomikoak edo jarduketa juridikoak.

Testuinguru horretan, erakundeen zenbait tresnak azpimarratu egiten dute garrantzitsua dela finantza-erakundeak eta agintariak elkarlanean aritzea, errazago identifikatu eta komunikatu daitezen zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonei eragin diezaieketen ondare-abusuak.

7.1. ESKU HARTZEKO PRINTZIPIO OROKORRAK

Abusu ekonomikoko egoera posibleen aurrean jarduteko orduan, profesionalek printzipio hauei jarraitu beharko liekete:

Pertsonaren autonomiarekiko eta borondatearekiko errespetua

Adinekoak eskubidea dauka bere ondarearen eta baliabide ekonomikoen gainean erabakiak hartzeko, baita erabaki horiek beste batzuen ikuspegitik eztabaidagarriak izan daitezkeenean ere.

Esku-hartze profesionalak helburu izan behar du egiaztatzea erabakia aske, informatuta eta kanpo-presiorik gabe hartzen dela.

Eragin bidegabeen prebentzioa

Abusu ekonomikoko egoera asko konfiantzazko harremanen esparruan gertatzen direnez (bereziki, familia- eta zaintza-harremanetan) eta, harreman mota horietan, manipulazioa, presioa edo konfiantza-abusua erraz ezar daitezkeenez, arreta berezia jarri behar zaie ondare-erabakiak hartzean egon litezkeen interes-gatazkei edo eragin bidegabeei.

Jarduketaren proportzionaltasuna

Ezohiko eragiketa bat egiteak ez du zertan esan nahi abusu ekonomikoko egoera dagoenik.

Profesionalen jarduketak oinarritu behar du detektatu diren zantzuen balorazio arrazoitu batean, eta saihestu egin behar ditu presazko jarduketak, zeinak eskubideak urratu edo alferrikako gatazkak sorraraz baititzakete.

Erakundeen koordinazioa

Abusu ekonomikoa prebenitu eta detektatzeko, finantza-erakundeek, Ministerio Fiskalak, gizarte-zerbitzuek eta agintaritza judizialek lankidetzan aritu behar dute, hala behar denean babes-mekanismoak aktibatzeko.

7.2. ESPARRU ETIKOA ETA DATUEN BABESA

Konfidentzialtasun-bermea.

Oreka bilatu behar da konfidentzialtasunaren eta babes-betebeharraren artean, konfidentzialtasuna ez delako printzipio absolutu bat: adinekoa abusu-egoeretatik babesteko betebeharrarekin haztatu behar da.

Ondorioz, arrisku larri bat dagoenean, pertsonaren babesa gailenduko zaio konfidentzialtasunari; halere, informazioa modu mugatu, proportzional eta justifikatuan partekatu beharko da. Hala, erakundeek barne-protokolo espezifikoak eduki beharko lituzkete, eta langileak datuen babesean eta pertsona zaurgarriekiko tratu onean trebatu, edota barne-komunikaziorako kanal seguruak ezarri.

Baimena eta onespen informatua. Bankuko jardunean, funtsezko elementua da onespen informatua ondo eskuratzea, adinekoak abusu ekonomikotik babestu nahi baditugu; bereziki, zaurgarritasuneko, mendekotasuneko edo beste batzuen eraginpeko egoeretan.

Onespen informatua borondatea egiaztatzeko prozesu aktibotzat jo behar da, eta ez izapide formal soiltzat, pertsonaren autonomiaren babes material gisara, modua ematen baitu egiaztatzeko erabakiak aske, kontziente eta presio bidegaberik gabe hartzen direla.

Onespena baliozkoa eta efikaza izan dadin, pertsonak informazio argia jaso behar du eragiketaren nolakotasunei, ondorio ekonomiko eta juridikoei eta lotutako arriskuei buruz, eragiketa hori diru-ateratzea, transferentzia, kontratazioa, titulartasun-aldaketa edo dena delakoa izan gorabehera. Informazioa egokitu egin behar da pertsonaren inguruabarretara, teknizismoak saihestuz eta benetan ulertzen duela ziurtatuz. Zalantzarik egotekotan, profesionalak neurri gehiago hartu beharko ditu, eta eragiketa ulertzen duela egiaztatu, galdera errazak eginez.

Babes berezia, gaitasunean muga handiagoak eta arriskuak dauzkaten adinekoentzat (zuhurtziazko etenaldia): Derrigortzeen edo tratu txar ekonomikoen zantzuak daudenean, banku-erakundeek eragiketa susmagarriak atzeratu behar dituzte, kontsulta juridikoa egiteko. Zuhurtziazko etenaldiak oinarria dauka finantza-erakundeen ardura-betebeharrean; izan ere, erakunde horiek bezeroak babestu behar dituzte, eta derrigortzeen edo eragin bidegabearen pean egindako jarduketak prebenitu. Estatuko Fiskaltza Nagusia eta banku-erakundeak lankidetzan aritzeko protokoloen arabera, banku-erakundeek kautela-neurriak hartu behar dituzte erabakiak hartzean abusu ekonomikoak edo babes-gutxiegitasuna daudela iradokitzen duten egoeretan.

Esku-hartze guztiek bete behar dute abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa, baita (EB) 2016/679 Erregelamendua ere, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

Legitimazioa: Datuak adinekoaren berebiziko interesa babesteko tratatzen dira, indarreko araudiarekin bat, EAEko Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea (12/2008) betetzeko.

7.3. ABUSU EKONOMIKO POSIBLE BATEN ZANTZUAK DAUDENEAN JARDUTEA (HASIERAKO JARDUKETA)

Profesional batek abusu ekonomikoko egoera posible batekin bateragarriak diren zantzuak detektatzen dituenean, hasierako jarduketa hauek abiatzea gomendatzen dugu:

Egoera behatu eta egiaztatzea

Bezeroen ohiko jarduna ezagutuz, egoera mota horiek detekta daitezke, ezagutza horrek modua ematen duelako mugimendu anomaloak edo ondare-abusuaren zantzuak identifikatzeko.

Adinekoarekin zuzenean komunikatzea

Ahal dela, adinekoarekin zuzeneko elkarrizketa bat edukitzea gomendatzen dugu; elkarrizketa horretan, pribatutasuna bermatu behar da, eta haren erantzunean eragin dezaketen pertsonak egotea saihestu, bermatzeko hartutako erabakian betetzen direla haren borondatea, nahiak eta lehentasunak.

Zuzeneko hartu-emana funtsezkoa izan daiteke detektatu daitezen derrigortze-egoerak, konfiantza-abusua edo manipulazio emozionala, zeinak sarriak izaten baitira familia barruko finantza-abusua dagoenean.

Erabakiak hartzean dauden laguntzak egiaztatzea

Komeni da egiaztatzea ea pertsonak laguntza-neurri formal edo informalak dauzkan, hala nola prebentziozko notario-ahalordeak, egitezko zaintza, kuradoretza edo bestelako laguntza-neurri judizialak.

Notarioak esku hartzea

Notarioaren esku-hartzea garrantzitsua izan daiteke abusu ekonomikoa detektatzeko orduan, onespena emateko gaitasuna eta askatasuna kontrolatuta. Izan ere, neurri horiek azalera atera ditzakete eragin bidegabeko egoerak.

Notarioaren eginkizuna efikazia handiko prebentzio-mekanismo bat da (batez ere, zenbateko handiko eragiketetan), eta emaileari aholkularitza inpartzial ematea eragin dezake, borondatezko neurriak formaliza ditzan laguntza jasotzeko edo ondarea babesteko.

7.4. GERTAKARIA ERREGISTRATU ETA DOKUMENTATZEA

Zantzu garrantzitsuak badaude, komeni da behatutako egoera barne-mailan dokumentatzea.

Egoera horiek ondo dokumentatzea funtsezkoa izan daiteke, geroko babes- edo ikerketa-jarduketak errazteko.

7.5. MINISTERIO FISKALARI KOMUNIKATZEA

Abusu ekonomikoaren zantzuak edo laguntza-neurriak nahikoak ez direlako zantzuak daudenean, erakundeek eta profesionalek gertaera horien berri eman diezaiokete Ministerio Fiskalari.

Alde horretatik, Jurisdikzio Boluntarioaren Legeak (15/2015, uztailaren 2koa) honako hau ezartzen du 42 bis a)3 artikuluan: "*edozein pertsona dago gaituta Ministerio Fiskalari jakinarazteko egitateak daudela iradokitzen dutenak laguntza-neurri judizialak behar dituen egoera bat dagoela. Agintariek eta funtzionario publikoek, beren kargua dela-eta, horrelako egitateen berri izaten badute edozein pertsonari dagokionez, Ministerio Fiskala jakitun jarri beharko dute. Bi kasuetan, Ministerio Fiskalak espedientea abiaraziko du*".

Estatuko Fiskaltza Nagusia eta banku-elkarteak lankidetzan aritzeko protokoloak, era berean, hainbat komunikazio-mekanismo aurreikusten ditu laguntzeko pertsona zaurgarrien kudeaketa ekonomikoan ondare-abusuak edo eragin bidegabeak daudela iradokitzen duten egoerak identifikatzen eta lurralde-fiskaltzei jakinarazten.

Ministerio Fiskalaren esku-hartzeak, besteren artean, hauek ekar ditzake:

- Ikerketa-eginbideak irekitzea.
- Gaitasun juridikoari laguntzeko neurri judizialak sustatzea.
- Pertsonaren ondarea babesteko kautela-neurriak izapidetzea.

Larritasuna handia denean (adibidez, jabetze bidegabea, maula edo derrigortzeak) edo presa handia dagoenean, zuzenean salaketa jar daiteke segurtasun-indar eta -kidegoen aurrean, edo agintaritza judizialari egoeraren berri eman.

7.6. GIZARTE-ZERBITZUEKIN KOORDINATZEA

Kasu zehatz batzuetan (bereziki, mendekotasuneko, bakartze sozialeko edo zaurgarritasuneko egoerak daudenean), egokia da gizarte-zerbitzuekin koordinatzea. Zerbitzu horien esku-hartzeak aukera emango du eragindakoaren egoera pertsonal eta soziala baloratzeko, familia barruko abusu-egoera posibleak detektatzeko eta laguntza- eta babes-baliabideak aktibatzeko. Adinekoen aurkako tratu txarren aurrean jarduteko protokoloek azpimarratzen dute oso garrantzitsua dela laguntza-sare sanitario, sozial eta juridikoak aktibatzea, bermatzeko egoera horiei erantzun osoa ematen zaiela.

7.7. EAEKO KONTAKTU NAGUSIAK

- Larrialdiak (112 / Ertzaintza)
- Deitu 112ra (SOS Deiak) edo Ertzaintzara (900 103 500), indarkeria fisikoa, berehalako derrigortzea edo ageri-ageriko maula badago.

Arrisku soziala (foru-aldundiak): Jarri harremanetan oinarrizko gizarte-zerbitzuekin edo foru-aldundiaren larrialdi- edo balorazio-zerbitzuarekin:

- Araba (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea): 945 15 10 15
- Bizkaia (Gizarte Ekintza): 944 06 60 00
- Gipuzkoa (Zaintzak): 943 11 25 11

Neurri juridikoak (Adin Nagusikoen Fiskaltza), ondarea babesteko neurriak eskatu behar badira:

- Bilbo: 944 01 66 38 | Donostia: 943 00 07 40 | Vitoria-Gasteiz: 945 00 48 00.

ERABILITAKO ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

American Psychological Association. (2022ko azaroaren 10a). Elder abuse: How to spot warning signs, get help, and report. https://www.apa.org/topics/aging-older-adults/elder-abuse

American Psychological Association. (2022). Elder abuse and financial exploitation: Clinical assessment and intervention. APA PsycNet. psycnet.apa.org

Ayron-López, M., & Fernández-Ballesteros, R. (2025). Edadismo y derechos humanos: Impacto en la autonomía económica de las personas mayores. Revista Española de Geriatría y Gerontología, 60(1).

Boyle, P. A., Yu, L., & Bennett, D. A. (2025). Financial anosognosia: A hidden risk factor for elder exploitation in community-dwelling older adults. The Journals of Gerontology: Series B, 80(1), 45-56. academic.oup.com

Burnes, D., Pillemer, K., Caccamise, P. L., & Lachs, M. S. (2021). Estimated incidence and factors associated with risk of elder mistreatment: A 10-year longitudinal study. JAMA Network Open, 4(8), e2117036. doi.org

Burnes, D., Pillemer, K., Caccamise, P. L., Mason, A., Henderson, C. R., Jr, Berman, J., Cook, A. M., Shukoff, D., Brownell, P., Powell, M. S., Sirey, J. A., & Lachs, M. S. (2021). Estimated incidence and factors associated with risk of elder mistreatment in New York State: A 10-year longitudinal study. JAMA Network Open, 4(8), e2117036. https://jamanetwork.com/journals/jamanetworkopen/fullarticle/2782989

Adineko Aktiboen Estatuko Konfederazioa [CONFEMAC]. (2025eko abenduaren 26a). Confemac konfederazioaren telefonoak (adinekoen aurkako abusuen eta tratu txarren berri ematekoak) gero eta kasu gehiago artatzen ditu; 2025ean, 650 baino gehiago. EntreMayores. https://entremayores.es/nacional/el-telefono-contra-el-abuso-y-maltrato-a-las-personas-mayores-de-confemac-sigue-creciendo-en-casos-atendidos-y-supera-los-650-en-2025/

Gisbert-Raya, P., Bermejo-García, L., & San-Juan, C. (2024). Prevalence of suspected abuse of non-institutionalized older patients in primary care: A multicentre study. Atención Primaria, 56(9), 102981. https://www.sciencedirect.com/science/article/abs/pii/S113835932400073X

Gisbert-Raya, P., Bermejo-García, L., & San-Juan, C. (2024). Prevalence of suspected abuse of non-institutionalized older patients in primary care: A multicentre study. Lehen Mailako Arreta, 56(9), 102981. doi.org

Eusko Jaurlaritza (2015, 2019an eguneratua). EAEko adineko pertsonenganako tratu txar fisiko eta ekonomikoak prebenitu eta hautemateko prozedura.

Han, S. D., Nguyen, A. L., & Lamar, M. (2023). Neurobiology of financial decision-making in aging: A review of recent neuroimaging findings. Current Behavioral Neuroscience Reports, 10(2), 88-97. link.springer.com

Han, S. D., Nguyen, A. L., & Lamar, M. (2023). Neurobiology of financial decision-making in aging: A review of recent neuroimaging findings. Current Behavioral Neuroscience Reports, 10(2), 88-97. doi.org

IMSERSO (2017). Protocolo para la detección y actuación ante situaciones de maltrato en los centros del IMSERSO. https://sede.imserso.gob.es/documents/20123/114156/im_114934.pdf

Li, S., Zhang, Y., & Chen, X. (2025). Elder abuse without borders: A systematic review and meta-analysis of prevalence in community and institutional settings. BMC Public Health, 25, 123. https://pmc.ncbi.nlm.nih.gov/articles/PMC12220308/

Peruko Osasun Ministerioa [MINSA]. (2024ko ekainaren 15a). Munduko sei adinekotik batek jasaten ditu familiaren eta zaintzaileen tratu txarrak. https://www.gob.pe/institucion/minsa/noticias/972499-uno-de-cada-seis-adultos-mayores-en-el-mundo-sufre-malos-tratos-por-parte-de-su-familia-y-cuidadores

Navarro-Pardo, E., & Cordero, P. (2024). Instrumentos de detección del maltrato financiero en la vejez: Una revisión de protocolos clínicos. Revista Española de Geriatría y Gerontología, 59(2), 101-112.

ELGA: (2023). Protecting older consumers from financial fraud and exploitation: Good practices for financial institutions. OECD Publishing. doi.org

Osasunaren Mundu Erakundea [OME]. (2021). Adinkeriari munduko txostena. Geneva. www.who.int

Osasunaren Mundu Erakundea [OME]. (2025eko uztailaren 6a). OMEk ohartarazi du adinekoen % 10 inguruk jasaten dituztela tratu txarrak. Solidaridad Intergeneracional. https://solidaridadintergeneracional.es/wp/la-oms-avisa-de-que-alrededor-del-10-de-las-personas-mayores-sufre-algun-tipo-de-maltrato/

Spreng, R. N., & Wood, S. (2025). Understanding financial exploitation among older adults: The role of financial skills and scam susceptibility. Journal of Applied Psychology, 110(4), 532-545. https://journals.sagepub.com/doi/abs/10.1177/30495334251327509

Spreng, R. N., Wood, S., & Turner, G. R. (2024). The financial vulnerability of the aging brain: Social and cognitive mechanisms. Nature Reviews Psychology, 3, 12-25. www.nature.com

Vandeweerd, C., & Myers, J. (2023). Trust and Betrayal in Older Adult Financial Exploitation. PMC - National Institutes of Health. https://pmc.ncbi.nlm.nih.gov/articles/PMC10587358/

Weissberger, G. H., Mosqueda, L., & Nguyen, A. L. (2024). Financial exploitation in mild cognitive impairment and dementia: A systematic review of prevalence and risk factors. Journal of Alzheimer's Disease, 98(3), 1015-1030. content.iospress.com

Weissberger, G. H., Mosqueda, L., & Nguyen, A. L. (2024). Financial exploitation in mild cognitive impairment and dementia: A systematic review. Journal of Alzheimer's Disease, 98(3), 1015-1030. doi.org

Yousefi, N., & Talebi, M. (2025). Factors associated with financial exploitation in older adults: A cross-sectional study. Journal of Geriatric Psychiatry and Neurology, 38(2), 112-120. https://www.sciencedirect.com/science/article/abs/pii/S01974572240034955

KONTSULTATUTAKO DOKUMENTAZIO JURIDIKOA:

1944ko ekainaren 2ko Dekretua, Notariotzaren Antolaketa eta Araubidearen Erregelamendua (Notariotzaren Erregelamendua) behin betiko onesten duena. https://www.boe.es/eli/es/d/1944/06/02/(1)/con

(EB) 2024/1385 Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2024ko maiatzaren 14koa, emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurka borrokatzekoa. https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=DOUE-L-2024-80770

Desgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioa (New York, 2006ko abenduaren 13a) berronesteko tresna. https://www.boe.es/eli/es/ai/2006/12/13/(1)

Emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta haien kontra borrokatzeko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbul, 2011ko maiatzaren 11) berronesteko tresna. https://www.boe.es/eli/es/ai/2011/05/11/(1)

12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. https://www.euskadi.eus/araudia-zerbitzua-sozialak/web01-a2gizar/eu/

41/2002 Oinarrizko Legea, azaroaren 14koa, pazientearen autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubideak eta betebeharrak arautzen dituena. https://www.boe.es/eli/es/l/2002/11/14/41/con

8/2021 Legea, ekainaren 2koa, zeinaren bidez legeria zibila eta prozesala erreformatzen baitira desgaitasuna duten pertsonei gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko. https://www.boe.es/eli/es/l/2021/06/02/8/con

1862ko maiatzaren 28ko Legea, Notariotzarena. https://www.boe.es/eli/es/l/1862/05/28/(1)/con

10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa. https://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/legedia_euskaraz_e_zigor_zuz/eu_def/adjuntos/Zigor-zuzenbidea/Zigor_Kodeari_buruzkoa.pdf

Bankaren Konpromiso Sozial eta Jasangarria Indartzeko Protokolo Estrategikoa, 2021eko uztailaren 23an sinatua. https://s1.aebanca.es/wp-content/uploads/2021/07/protocolo-estratgico-para-reforzar-el-compromiso-social-y-sostenible-de-la-banca.pdf

Ministerio Fiskala eta banku-sektorea lankidetzan aritzeko protokoloak, 2023ko uztailaren 19koak. https://www.fiscal.es/-/la-fiscal%C3%ADa-y-el-sector-bancario-suman-fuerzas-para-facilitar-la-gesti%C3%B3n-de-las-cuentas-de-personas-con-discapacidad

Lankidetzarako esparru-protokoloa, banku-eremuan desgaitasunen bat duten pertsonen gaitasun juridikoari laguntzeko neurriak eraginkorrak izatekoa. https://www.fiscal.es/documents/d/fiscal/protocolo-marco-de-colaboracion-para-la-efectividad-de-las-medidas-de-apoyo-a-la-capacidad-juridica-de-las-personas-con-discapacidad-en-el-ambito-bancario?download=false

Protokolo orokorra, desgaitasunen bat edukita edo beste zaurgarritasun-egoera batzuetan egonda banku-produktuen titularrak diren pertsonen ondarea babestekoa. https://www.fiscal.es/documents/d/fiscal/protocolo-general-de-colaboracion-para-la-proteccion-patrimonial-de-personas-titulares-de-productos-bancarios-con-discapacidad-o-en-otras-situaciones-de-vulnerabilidad?download=false

Estatuko Fiskaltza Nagusiaren eta banku-elkarteen arteko esparru-protokoloa interpretatzeko dokumentua. 1. dokumentua. Egitezko zaintza 8/2021 Legean (2025eko maiatzean eguneratua). https://www.fiscal.es/documents/d/fiscal/guarda-de-hecho-documento-interpretativo-al-protocolo-marco-entre-fiscalia-general-del-estado-y-asociaciones-bancarias?download=false

1/2007 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontsumitzaileak eta Erabiltzaileak Babesteko Lege Orokorraren testu bategina eta beste lege osagarri batzuk onartzen dituena. https://www.boe.es/eli/es/rdlg/2007/11/16/1/con

Ministroen Kontseiluak 2014ko otsailaren 19an estatu kideei emandako CM/Rec gomendioa (2014), adinekoen giza eskubideak sustatzeari buruzkoa. https://search.coe.int/cm#{%22CoEIdentifier%22:[%220912594880101786%22],%22sort%22:[%22CoEValidationDate%20Descending%22]}